

1)

Martiko hilak hogeta hamaika
egunaren zabaleran
durangotarrok itxartu ginan
..... dei zapalberan.
Mamutzar batzuk agertu ziran
Elorrion zehar hegan
goiko zeruak jarri ginduzan
..... sarreran.

2)

..... jasango eban
suzko danbarrada lehenen
ezker-eskuma ha zan triskantza
..... ondoren.
Alzamentua zer izango zan
laster jakin gendun hemen
hirurehun hilda, herririk erdi
txikituta itxi eben.

3)

..... goizeko mezan
jaunartzeko gengoza
berrogetamar kristau hil ginan
Mezaduna buru zala.
Bardin komentu ta,
aitzen emonaz bezala
jainkoa euren alde ez bazan
danak erreko ebezala.

4)

.....
geltoki apurturaino
arratsaldean barriro ez zan
hilak eta hautsa baino.

Frontoia zabor, ketan
suak "gero arte!" dino
halango beste ekitaldi bat
falta genduan ondino.

5)

..... bian barriro
Savoia eta Fiatak
gure ganera hustu ebezan
italiarren goi-zartak.
..... hilak lepoan
jo gendun bizi ausartak
geu be zulora etzun ginduzan
suntsipenaren enbatak.

6)

Behin gitxi zala bigarreanean
krimenez nahikotu bako
bonba-lapiko hegalarien
saldarik ez zan faltako.
..... be hauts bihurtua
hondamen zelai
eskerrak ia danok herritik
aldeta gengozalako.

7)

Francok agindu, birrindu
Hitlerrentzako biak on
Tronperri maite honi suberte
mortala etorri jakon.
Oi, zezentzar hori
baur be ondino nun hagon!
..... fama zelan gailurtu
ikasi heuan Durangon.